

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 338/2020 Erabakia, uztailaren 21ekoa. Behin betiko onestea Iruraiz-Gaunako udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzorua mugaketa

Ekainaren 10eko 262/2020 Foru Aginduaren bitartez, behin-behineko onespena eman zitzaion ondasun higiezinaren zergari loturiko Iruraiz-Gaunako udalerriko hiri lurzoruen mugaketari, udalerriko plangintzako arau subsidiarioetan egindako hainbat aldaketa puntual direla eta egin beharreko eguneraketa gauzatzeko.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, 11. artikulua 4. apartatua, 15 eguneko epea ezartzen du egoki irizten diren alegazioak aurkezteko, eta epe hori igarota, Iruraiz-Gaunako Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako erabakia erabakiarekin.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu titularrak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onspena ematea, honekin batera doazen planoen arabera, ondasun higiezinaren zergari loturiko Iruraiz-Gaunako udalerriko hiri lurzoruen mugaketari, udalerriko hiri antolamenduko plan orokor berria eta haren hainbat aldaketa puntual direla eta egin beharreko eguneraketa gauzatzeko.

Bigarrena. Hori gorabehera, kontuan izan behar da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 3.2.b) artikuluan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten eta herriguneetatik kanpo dauden lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoko egunkari salduenetan ere. Gainera, jendaurrean egongo da 15 egunez, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak jar ditzaten. Iruraiz-Gaunako Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, 11. artikulua 5. apartatua, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Gasteiz, 2020ko uztailaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^a JOSÉ PEREA URTEAGA